



SIMONE LAMSMA BIOLINJOLE HERBEHERETARRA EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAREKIN ESTREINATUKO DA LAWRENCE FOSTERREK ZUZENDUTAKO PROGRAMA BATEAN

Programa honako piezek osatuko dute: Ramon Lazkanoren azken orkestra-sorkuntza, *Hondar*; Benjamin Brittenen *Biolinerako kontzertua*, Lamsma biolin-bakarlarari lanetan izango duena; eta Felix Mendelssohnen *4. Sinfonia "Italiarra"*.

Ingelesa al dente izenburupean, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren abonu-denboraldiko zortzigarren programaren **kontzertuak** honako data eta tokietan izango dira: apirilaren 16 eta 20an Donostiako Kursaalaren, 17an Iruñako Baluarte Auditorioan eta 19an Gasteizko Principal Antzokian.

2016an Monte-Carloko Orkestra Filarmonikoak estreinatutako **Hondar**, 2006ko *Hauskor*-ekin batera, **Lazkanoren** eskala handiko lehendabiziko partitura da, eta bertan bere soinu-unibertsoan ezinbestekoa den kontzeptu bat ikertzen du: higadurarena. Irauten dituen hogeitun minutuetan askotariko soinu bitxi iristezinetan barrena ibiltzen da *Hondar*; soinu arrotzetan, alienatuetan eta ezezagunetan barrena. Lazkanok "gaurdaino egin duen ahalegin itzelena" da konposizio hau, Mikel Chamizok programaren oharretan adierazi duenez.

Benjamin Brittenekin orkestra-idazkuntza tradizionalera itzuliko gara, hargatik originaltasunik galdu gabe. 1939ko *Biolinerako kontzertuan*, instrumentuen erabilera benetan bitxi eta deigarriak aurki ditzakegu eta, Brittenek maiz landutako estiloaz, kontzertuak aldarte-aldaketa ugari ditu, batean ere ez denbora gehiegi gelditu gabe. **Simone Lamsma** herbeheretar biolinjolea, espezialista handia Brittenen kontzertu honetan, izango da biolin-bakarlarari lanetan arituko dena. Hain zuzen, kontzertu honen bidez hartu zuen ospea 2014an, azken unean Janine Jansen ordezkatu zuenean Clevelandeko Orkestrarekin egindako emanaldi batean. Kritikak gogotsu hartu zuen ezusteko ordezkapen hori, eta horrek ateak ireki dizkio Estatu Batuetako eta Europako hainbat orkestra entzutetsuetan parte hartzeko.

Programa **Felix Mendelssohnen 4. Sinfoniarekin** amaituko da. Obra hau "**Italiarra**" izenez da ezaguna, Mendelssohnek 1830ean herrialde transalpinoan egin zuen egonaldi sabbatiko batean konposatu baitzuen (garai hartako baliabide ekonomikodun gazteentzat ohiko norakoa zen Italia). Lurralde hartako kulturarekin kutsatu ostean, Mendelssohnek 1833an amaitu zuen obra Berlinen. Musikagile alemaniarra hain atsekabetuta geratu zen emaitzarekin, ezen partitura berrikusi eta azken hiru mugimenduak ordezkatu egin nahi izan baitzituen; ez zuen lortu, ordea, gazte hil baitzen. Nolanahi ere, "**Italiarra**" erreperitorio sinfonikoko atal ospetsuenetako batean bilakatu da.

Programa **Lawrence Fosterrek** (Los Angeles, 1941) zuzenduko du, nazioarteko panoramako zuzendari ezagun eta txalotuenetako batek. Zortzi urte igaro dira zuzendari estatubatuarrek azkenengoz Euskadiko Orkestra Sinfonikoa bisitatu zuenetik. Bere ibilbidea Portugaleko musika-bizitzari lotuta dago ezinbestean, batez ere Lisboako Gulbenkian Orkestrari, hura zuzendu baitzuen hamar urtez, eta bertako Ohorezko Zuzendaria baita egun. Esperientziaz betea, nazioarteko beste orkestra entzutetsu askotan ere bete du zuzendari titular papera.

Sarrerak salgai (10€tik 35€ra). Kontzertu hauetarako sarrerak salgai daude sarrerak.euskadikoorkestra.eus webgunean eta kontzertu-aretoetako webguneetan zein leihatiletan. "Azken ordu gaztea": 30 urtetik beherako lagunek aukera izango dute gune guztietako sarrerak 10€tan erosteko, kontzertua hasi baino 30 minutu lehenago (leihatilan).